



DIREZIONE GENERALE OPERE DON BOSCO

Via della Pisana 1111 - 00163 Roma

Il Rettor Maggiore

INSPEKTOREEI ETA BERAUEN KONTSEILUEI, BISITADURIETAKO ORDEZKARIEI ETA BERAUEN KONTSEILUEI, EUREN EGOITZETAN

Anaia Inspektore eta Bisitadurietako Ordezkarri maiteok:

Inspektorien eta Bisitadurien Animazioaren eta Gobernuaren arduradun zareten guztioi, anaia arteko agurra eta besarkada helarazten dizkizuet, ofiziala den baina formatu informala goan, gutun-eran, doan jakinarazpen honen bidez. Anaia Inspektoreekin eta berauen Kontseiluekin komunikatzen den Erretore Nagusiak formatu hau erabili nahi du, ez boletin ofizialak, hots, Kontseilu Nagusiaren Aktak. Formatu hori beste gutun-mota baterako izango da.

Gutun honen arrazoia, Kontseilu Nagusiaren bilerak ia bukatzen ari garen aldi honetan, Kongregazio guztiari, zuon bitartez, *familiari, animazioari eta gobernuari* dagozkien albiste batzuei buruzko informazioa ematea da. Sinetsita nago, eta hala jakinarazi diet Kontseilu Nagusiko kideei, gure artean lantzean behin komunikatzeko modu honek, on egingo digula denoi, neuri lehendabizi.

Honexegatik, ahalik eta anaia gehienei irits dakien nahiaz, zuon bitartez, laguntza eskatu dut ahalik eta itzulpen gehien egiteko (Eskualdeko ordezkarria izango baita eskualde horretakoak helaraziko dituen). Hizkuntzak: *italiera, gaztelania, Latinoamerikako espainiera, ingelesa, portugesa, frantsesa, alemana, koreera, vietnamera, poloniera, esloveniera, ukrainera, errusiera, katalana, galegoa, euskara.*

Aldi berean, Erretore Nagusiak idazten dituen berezko gutunak lehengoan helburu berbera edukiko dutela adierazten dizuet. Gutunon erritmoari dagokionez, Aita Pascual Chavezek eskaini zidan gogoeta jasotzen dut. Esan zidan aspalditik ari zela gutunak urtean bi, sei hilabetero, izan zitezten komenigarritasunaz gogoeta egiten. Bat urtearen erdialdean izango litzateke, bestea, Aginaldoa dela kausa. Ni neu iritzi horretakoa naiz, Inspektorien bizitzako esperientziak erakusten baitigu ohiko erritmoek ez digutela iristen zaizkigun gutun eta agiri guztiak gureganatzen uzten.

Erritmoa, beraz, hauxe izango da: Erretore Nagusiaren gutuna urtearen erdian, eta bigarrena, "Aginaldoarena", urtearen azkenetan. Kontseilu Nagusiaren Aktek, berriz, gaurko Akten antzeko edukiak eta egitura izango dituzte.

Gutun honetan aztertu nahi ditudan gaiak dagokienez, zerrenda honakoa da:

✚ *Zenbait oihartzun 27. Kapitulu Orokorren argitan*

- ✦ *Obedientziak: Erretore Nagusi Emerituak, Aita Pascualek, Erretore Nagusi Emerituaren Bikarioak eta aurreko Kontseilu Nagusiko kideek egingo duten zerbitzua*
- ✦ *Kontseilu Nagusiaren bilerak eta honen eta sektoreen koordinazioa (27. Kapitulu Orokorreko 11. Deliberazioa)*
- ✦ *'Ufficio Giuridico' delakoaren arduradunaren izendapena*
- ✦ *Turingo Misio-Prokurako Prokuradore berriaren izendapena*
- ✦ *Salestar Lekueta Pertsonala (27. Kapitulu Orokorreko 17. Deliberazioa)*
- ✦ *Inspektorietako laguntza - Direzione Generalerako eta Etxe Nagusirako laguntzaren eskaera*

. 1. ZENBAIT OIHARTZUN KAPITULU OROKORRAREN ARGITAN

Anaiok, gutunaren lehenengo atal hau aprobetxatu nahi dut zenbait bihotz-taupadak gure Kapitulu Orokorra Kongregazioarentzat, gure Inspektorietako bakoitzean, eta horietako anaienez, izan dena eta, zalantzarik gabe, izango dena, adieraz dezaten. Graziatzko aldia bizi izan dugu, guztioi sakon iritsi zaigun *anaitasunezko eta elkartasunezko* bizipena. Uste dut ez garelako erraz “hunkitzen” direnetarikoak, eta esango nuke, gainera, egunerokotasunak eta lan exigenteak nolabait tolesgabetasuna kentzen digutela eta “zorrotzagoak” egiten gaituztela, eta hala ere, Fede-, anaitasun-, eta elkartasun-esperezia honek bihotza ederki ukitu digu. Beste behin berretsi du, gudan eta erlijiosio-bizieran, benetakotasunez bizi dena *profezia* dela.

Zuetariko gehienok itzuli zarete Inspektorietara eta Bisitadurietara. Gutxi batzuk hemen geratu gara, eskatu diguzuen zerbitzua egiteko, baina ziur nago guztiok dugula geu mobilizatzeko eta, ahal den neurrian, gure Anaia guztiak, edo berrietasunera irekien daudenak, mobilizarazteko nahi bizia.

Anaiok, sinetsita nago Kongregazio gisa *Jainkoaren Bilbean egoten jarraitu nahi dugula*, ehun horretan, gutariko bakoitza den hariak *gure Jainkoa ehotzen ari den Historia-oihalak* gure arnasa, gure energia, gure ahaleginak, gure bizitza osoa ere izan ditzan lagun dezan.

Gure anaitasunaren balio profetikoa, *honen testigantza erabat erakargarria izatea lortzerainokoa*, aipatu dut.

Eta hau guztia *gure Taborrera* iristeko. Hainbestetan esan dugu “agirien” beldur garelako, kapitulu orokorrak “agiriak” egiteko ez direlako; egia da, zeren horren helburua salestar karismarekiko eta Jaunak Espirituaren bitartez Don Boscogan eman digun eginkizunarekiko (hain justu, salestar karisma esaten diogun horrekiko) leialtasunari eusteko bidea etengabe indartzea baita. Baina egia da, Anaiok, gure testu eta idazkietan *hain indar handiko esaldiak* aurkitzen ditugula, ezen guk egiaz nahi izanez gero, inola ez baikintuzkete hotz utziko.

Gure azkeneko Kapitulu Orokorrean ere horietako asko ditugu. Bat aipatuko dut bakarrik, *Jainkoaren Bilbean egoteko eta Anaitasunezko Profezia izateko* nahia eta beharra osatzen dituenak. Dei indartsu honetan irakurtzen dugu:

“Bizi dugun elizaldi berriaren jakitun garelako, sinetsita gaude gure biziera sagaratu egoismoaren eta autoerreferentzialismoaren aurkako oihua dela: kontua da behartsuen bidera irtetea, besteen bidera irtetea, Jesusen jarrera errukitsuaz, gure bizitza pobre eta solidariotik abiatuz. Gure klaustroa egoera zailean dauden gazteen mundua da, eta gure otoieta esku altxatuak dira, eta gure ekintza, baztertuenei duintasuna emateko ahalegina. Honetarako ezin dugu energiarik aurreztu, ez “gure gauzetarako” edo gure interes pertsonaletan itsutzeko denbora gehiago hartu. Aurrean dugu mila aldiz agindutako beste lurralde batera iristen lagunduko digun irteera/exodoa, abandonatu eta

behartsuenen lurraldera heltzen lagunduko diguna. Hortxe, salestar garenez, aurkituko dugu gure Taborra (27. Kapitulu Orokorreko Agiriak, 5. Alegatua)

A zer indarra hitz hauena!, anaiok. Gazteekin aurkitzen dugu gure Taborra. Hauxe da gure konbertsioa eta hauxe izango da gaur eta beti gure “Don Boscorengana itzultzea”.

Kapitulua bukatu zenetik joan diren ia hiruhilabete hauetan, hainbat aldiz galdetu didate zenbait kazetarik gure Kongregazioari dagokionez beldur naizen. Nik beti erantzun dut, zintzotasun osoz, ez dudala inolako beldurrik, inolakorik!, ez nagusikeriaz jantzirik nagoelako edo apaltasunik ez dudalako ... Ez, ez du horrekin zerikusirik, egiaz uste baitut apaltasunak eta xalotasunak gure ezaugarri bereizgarri izan behar dutela, *gure salestar DNaren osagai nagusitzat dudanarekin batera, genetikoki salestar eta Salestar Familia egiten gaituenarekin batera, hau da, gazteekiko, batik bat gazte behartsuenekiko, zaletasun pastoral biziarekin batera*. Horregatik ez dut gure Kongregazioari dagokionez inolako beldurrik, *gazteak gure zaletasun pastoral eta gure Taborra* diren heinean ziurtatua dagoelako gure Leialtasuna, eta Leialtasunean, zalantzarik gabe, Jaunaren Espirituak gazteen aldeko, eta horien artean, munduko gazte behartsuen aldeko, gure Salestar Kongregazioa eta gure Familia nahi izaten/maitatzen jarraituko du.

2. OBEDIENTZIAK

Gure 27. Kapitulu Orokorra bukatu genuenetik joan diren hiru hilabeteek aukera eman digute, besteak beste, agertu izan diren behar batzuk aztertzeko eta euren zerbitzua bukatu duten Anaiekin hitz egiteko. Hitz egin dut Kongregazioaren eta Salestar Familiaren buru izan den gure Erretore Nagusi Emeritu maitearekin, Bikarioarekin eta aurreko Kontseilu Nagusiko gainerako Anaia guztiekin. Esan behar dut oso gauza ederra izan dela anaia arteko elkarrizketan bizi izandakoa, denek erabateko gertutasuna eta zerbitzua erakutsi dituztela. Testigantza bikaina.

Obedientziak, hortaz, honakoak dira:

Erretore Nagusi Emeritua, Aita Pascual Chávez, Erromako San Tarsitzioko komunitatera doa; lehenengo mandatua bere osasuna zaintzen jarraitzea eta sendatzeko bide bikainari eustea du; aldi berean, Kongregazioaren etengabeko prestakuntzan laguntzeko prest egongo da; erretiroak, gogo-jardunak, hitzaldiak, argitalpenak,... animatuz, eta Salestar Familiari eta Biziera Sagaratuari zerbitzu handia eskainiz.

Erretore Nagusi Emerituaren Bikarioa, Aita Adriano Bregolin, Italiako ICC Inspektorian inkardinatua geratzen da. Inspektoreak (bere Kontseiluak onetsita) *Firenzeko Etxeko Zuzendari* izendatu du. Izendapen honek Kontseilu Nagusiak duela aste bi egin zuen bileran oniritzia jaso zuen.

Inter Amerikarako Ordezkarria, Aita Esteban Ortiz, jatorriko Inspektorian, *Ekueadorren*, inkardinatzen da.

Mendebaldeko Europarako Ordezkarria, Aita Jose Miguel Nuñez, Sevillan egoitza duen Espainiako *María Auxiliadora* Inspektoria berrian inkardinatzen da.

Asiarako eta Ozeaniarako Ordezkarria, Aita Andrew Wong, Jerusalemeko *Ratisbonneko Nazioarteko Ikastegi Teologikoko Komunitateko Zuzendaria* izendatu da.

Ipar Europarako Ordezkarria, Aita Marek Chrzan, *Gesú Maestroko (UPS) Elkarteko Zuzendari* izendatu da.

3. KONTSEILU NAGUSIAREN BILERAK ETA HONEN ETA SEKTOREEN KOORDINAZIOA (27. Kapitulu Orokorreko 11. Deliberazioa)

Soila eta laburra da puntu honetan eskain diezazuekedan informazioa. Kontseilu Nagusiaren bileren koordinazioaz, eguneko gaiez, Erretore Nagusiaren Bikarioa arduratzen dela esateko baino ez. Egunean-egunean biharamuneko aztergaien zerrenda zehazten da (badakizue egun guztietan, astelehenetik ostiralera, dagoela kontseiluaren bilera). Erretore Nagusiarekin batera, Bikarioak zehazten ditu heldu beharreko gaiak, horiek aztertzeko eta bereizketetarako, kontsultetarako eta ondorengo izendapenetarako txostenak aztertzeko erritmoaren arabera.

Aldi berean jasota uzten dut Bikarioa zenbait aldiz bildu dela Sektoreetako Kontseilariekin, seiurtekoa programatu eta sektore ororen ekintzak, hurbilekoak eta urrutikoak, gauzatu aurretik, beharrezkoa den koordinaziorako. Modu berean, eta 27. Kapitulu Orokorreko 11. Deliberazioak eskatzen zuena betetzekotan, koordinazio hau Eskualdeetako Ordezkariekin eta Kontseilari guztiekin (sektoreetako eta eskualdetako kontseilariak euren artean) burutzen ari da.

Aldi berean, Erretore Nagusiak aurreratu die Kontseiluko kide guztiei honezkero 2014 honetarako eta 2015 osorako bost kontinenteetako ikustaldien agenda. Helburua: bai Sektoreetako Kontseilariekin, beharrezkoa den heinean, bai Eskualdeetako Ordezkariekin koordinatzea, denek Inspektoretarako ikustaldietan parte har dezaten.

4. KONGREGAZIOAREN “UFFICIO GIURIDICO” delakoaren ARDURADUNAREN IZENDAPENA

Kontseilu Nagusiaren lehenengo bileran, Kapitulu Orokorra bukatu eta ondorengo hiru egunetan egin zen hartan, *Aita Pier Fausto Frisoli* gure Kongregazioaren *Bulego Juridikoaren Arduradun* izendatu zen. Harrezkero bulegoaren ardura hartu du, Don Francesco Maraccani, beronen lan eta esperientzia bikainez, lagun duela. Informazioa eta agiriak traspasatzeko prozesu ordenatua gauzaten ari dira.

5. TURINGO MISIO-PROKURAKO PROKURADORE BERRIAREN IZENDAPENA

Gure anaia *Stefano Vanolik* Prokuradore-zerbitzua uztea eskatu didala jakinarazi nahi dizuet.

Onartu diot eskaera, egoera dela eta; eginkizun horretarako beste anaia bat bilatu eta aurkitu dugu. Gure ustez, honek ere zerbitzu bikaina egingo du. Hortaz, *Giampietro Pettenon Anaia* Prokuradore berri izendatu dugu. Bere Inspektoriako ordezkapena gauzatu ondoren emango dio hasiera bere zerbitzuari, gaur egun Giampietro Inspektoria Venetako (INE) ekonomo inspektoriala baita. Oraintxedanik eskertu nahi diet bai Giampietrori berari bai bere Inspektoreari eta anaiei euren bihotz-zabaltasuna, sakrifizio eta guzti, Inspektoriako anaiaren zerbitzu berri hau onartu dutelako.

6. SALESTAR LEKUETAKO PERTSONALA (27. Kapitulu Orokorreko 17. Deliberazioa)

Gure 27. Kapitulu Orokorrak deliberazio honetan eskatutakoa betetzekotan, denboran zehar, proiektu batetik abiatuz, garapen zainduagoa, pentsatuagoa eta egiaztatuagoa eduki behar izango duen zerbaiten lehen pausoak eman ditugu. Hiru anaiari, Italiako bati eta Espainiako biri (Don Enrico Lupanori, Don Felix Urrari eta Don Rafael Gasoli),

Valdoccoko komunitatearen parte izanez, datorren 2015ean zerbitzu berezia eskaintzeko eskatu diegu: Don Boscoren jaiotzaren berrehungarren urteurrenean *Valdoccoko gure "Leku Santuetara"* joango diren milaka erromesi ahalik eta kalitate oneneko harrera (fisikoa zein pastorala eta espiritual) egitea, gero, bizi izandakoaren esperientzia abiapuntu dela, zerbitzu pastoral eta espiritual bikaina izatea nahi dugunaren proiektua formulatu ahal izateko. Gauza bera egingo da Colle Don Boscon, han dauden anaien eta etorkizunean gehitu lekizkiekeen anaien laguntzaz. Egokia iritzi diogu Kapituluko deliberazio honen gauzatzea Valdoccon hasteari, ez baita beti erraza izaten zerbitzu honetarako gertutasun egokia duten pertsonak aurkitzea. Oraindik eskertzen diegu zerbitzu eder hau.

8. AZKENA

Gutun hau gure Ama Laguntzailea aipatuz bukatu nahi dut. Horretarako, nireak baino hitz zuhurragoak jaso ditut, Frantzisko Aita Santuak 27. Kapitulu Orokorrekoei audientzia eman zigun egunean bere mezuaren azkenean esandakoak. Zera esan zigun:

"Anaia maiteok, Don Boscoren jaiotzaren berrehungarren urteurrena ateetan dugu. Une egokia izango da zuon Fundatzailearen karisma berriz proposatzeko.

Andre Maria Laguntzaileak beti eman dio Kongregazioari bere laguntza, inoiz hutsik egin gabe, eta etorkizunean ere, ziur, hutsik egin gabe lagunduko dio. Bere ama-bitartekotzak lor diezazkizuela Jainkoagandik nahi eta espero dituzuen fruituak. Bedeinkatzen zaituztet eta zuon alde errezatzen dut eta, mesedez, erreza ezazue zuok nire alde. Eskerrik asko"

Frantzisko Aita Santuak aipatzen digun konfiantza berberaz jar gaitezen gure Ama Laguntzailearen babespean.

Anaia-besarkada handia.

Erroman, 2014ko uztailaren 15ean

P. Ángel Fernández A.,SDB

Rector Mayor